

EKINTZA-HUMANITARIOKO ESKU-HARTZEETAKO LAGUNTZAK PROPOSAMEN TEKNIKOA BETETZEKO LAGUNTZA-DOKUMENTUA

1.- LABURPENA

Deskribatu, gehienez 10 lerrotan, esku-hartzearen edukia, daturik garrantzitsuenak adierazita.

2.- KOKAPEN ZEHATZA (Ez txertatu eranskinik)

Deskribatu, gehienez 20 lerrotan, esku-hartzearen kokapen xehatua.

3.- TESTUINGURUA (Ez txertatu eranskinik)

3.1. Labur-labur, esku-hartzearen testuingurua azaldu.

Azaldu herrialdearen egoera zein den (egoera soziala, kulturala, ekonomikoa, politikoa eta abar).

3.2. Artatu behar den krisi humanitarioa eta hura sortu duten arrazoiak identifikatu. Hala bada, azaldu martxan jarriko diren ekintzen arteko global-tokiko lotura.

4.- IDENTIFIKAZIO-PROZESUA (Ez txertatu eranskinik)

4.1. Labur-labur, identifikazio prozesua eta esku-hartzearen garapena adierazi (eragileak, eremuak eta metodologiak). Tokiko biztanleriak, erakunde onuradunak, tokiko bazkideak eta, dagokionean, bertako ordezkariak izango duten eginkizuna deskribatu, eta baita bertan dauden beste erakundeek izango dutena ere.

4.2. Esku-hartzea abiarazteak biztanleriarengan eta ingurunearengan izan ditzakeen arriskuen azterketa txertatu.

5.- JUSTIFIKAZIOA (Ez txertatu eranskinik)

5.1. Esku-hartzeak printzipio humanitarioak nola errespetatuko dituen azaldu. Hala dagokionean, proposatutako ezarpenaren eta jarduteko moduaren zailtasunak atzeman.

5.2. Esku-hartzea erakunde eskudunen eta nazioarteko erakundeen planetan edo deialdietan nola integratuko den adierazi.

5.3. Eskura dauden koordinazio-mekanismoak eta horietan izandako parte-hartzea deskribatu.

5.4. Esku-hartze hau erakunde onuradunaren eta tokiko bazkidearen Ekintza Humanitariorako Plan Estrategikoan nola txertatuko den azaldu.

6.- XEDE-BIZTANLERIA (Ez txertatu eranskinik)

6.1.- Xede-biztanleria identifikatzea eta ezaugarriak aipatzea

Kolektiboa Desplazatua/errefuxiatua/abegi-biztanleria	Kokapen geografikoa	Komunitatea/egonleku/errefuxiatu-esparru	Pertsonak guztira	Emakumeak	Gizonak	Adin-taldea	Aniztasun funtzionala

6.2.- Hautaketa-irizpideak

6.3.- Gaitasun eta ahultasunen analisisa

Kolektiboa Desplazatua/errefuxiatua/abegi-biztanleria	Gaitasun fisiko eta materialak	Gizarteari/antolamenduari/kapital sozialari dagozkien gaitasunak	Motibazioari/jarrerari/ezagutzei dagozkien gaitasunak

7.- ESKU-HARTZEAREN LOGIKA (Ez txertatu eranskinik)

7.1.- Marko logikoaren matrizea

- Helburu orokorra. Deskribatu esku-hartzearekin lortu nahi den helburu zabalena.
- Helburu espezifikoa. Deskribatu xede-biztanleriarengan lortu nahi den eragin positiboa, testuinguruaren azterketan deskribatutako funtsezko arazoak konpontzeko.
- Helburu espezifikoaren lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak deskribatzea, egiaztagarriak eta neurgarriak, kualitatiboak eta kuantitatiboak, artatutako biztanleen desparekotasun zehatzak kontuan izango dituzten adierazleak, besteak beste, generoari, adinari edota etniari dagozkienean.
- Adierazleak egiaztatzeko iturriak: adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer iturri baliatzen diren zehaztuko da –inkestak, zuzeneko behaketa, argitalpenak eta abar–.
- Kanpoko faktoreak edo hipotesiak. Deskribatu kontuan izan beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere esku-hartzearen kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, esku-hartzeak arrakasta izatean eragin erabakigarria izan badezakete.
- Lortu nahi diren emaitzak. Esku-hartzea gauzatzean lortuko diren emaitzak deskribatzea, betiere egindako jardueren ondoriozkoak izanik eta helburu espezifikoa lortzen lagunduko dutela.
- Emaitzen lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta neurgarriak deskribatzea, kualitatibo eta kuantitatiboak, artatutako biztanleen desparekotasun zehatzak kontuan izango dituzten adierazleak, besteak beste, generoari, adinari edota etniari dagozkienean.
- Adierazleak egiaztatzeko iturriak. Adierazleen betetze-maila zein egiaztatze-iturriren bitartez –inkestak, behaketa zuzena, argitalpenak...– egiaztatuko den deskribatu behar da.

HELBURUA	ADIERAZLEAK	OL (1)	EGIAZTATZEKO ITURRIAK	KANPOKO FAKTOREAK/HIPOTESIAK
HELBURU OROKORRA XXX				
HELBURU ESPEZIFIKOA XXX	1. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

1. EMAITZA XXX	1. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

2. EMAITZA	1. AOE 2. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
XXX	2. AOE 2. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

(1) Identifikazioaren bati esker adierazleren bat izango balitz (oinarrizko lerro bat)

7.2.- Proposatutako esku-hartzearen logika babesten duten arrazoiak azaldu. Aurreko esku-hartzeetan ikasitakoa nola txertatu den adierazi.

7.3.- Aurreikusitako jarduerak

8.- JARDUEREN KRONOGRAMA (Ez txertatu eranskinik)

7.3 atalean deskribatutako jarduerak lehenengo zutabean zerrendatuko dira. X batez adieraziko da jarduera gauzatzeko aurreikusitako epea.

Urtea	1. URTEA		2. URTEA	
	1.a	2.a	1.a	2.a
Seihilekoak				
1. emaitza				
Jarduerak...				
Emaitza (...)				
Jarduerak (...)				

9.- AURREKONTUA (Excel dokumentua bete)

10.- BIDEGARRITASUNA

10.1.- Bideragarritasun teknikoa, materiala eta metodologikoa

Eskuragai diren baliabide tekniko, material eta metodologikoen arabera esku-hartzearen bideragarritasuna frogatzea: obren edo azpiegituren karpeta teknikoak (planoak, lizentzia administratiboak, eta abar), prestakuntza-planak (edukiak eta metodologiak), ikerketak ... **Txertatu eranskin gisa beharrezkoa den dokumentazioa.**

10.2.- Segurtasun-mekanismoak

Ondasunentzako eta langileentzako (bertakoak eta atzerriratutako) eskura diren segurtasun mekanismoen arabera, esku-hartzearen bideragarritasuna frogatu. Langileen informazio- eta trebakuntza-prozesua azaldu.

10.3.- Giza baliabideen bideragarritasuna

Eskura dauden giza baliabideen arabera, esku-hartzearen bideragarritasuna frogatu. Honako taula hau bete:

Zenbakia	AEL: Ardatz estrategikoetako langileak/TL: Tokiko langileak/AL: Atzerriratutako langileak*	Lan postua	Zereginak	Egozte ehunekoa

11.- ESKU-HARTZEAREN ZEHARKAKO LERROAK (Ez txertatu eranskinik)

11.1.- Tokiko ahalmek indartzea eta kalteberatasuna murriztea, konektibitate-irizpideari jarraituz.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratara eta zein neurritan indartzen dituen artatutako biztanleen gaitasunak eta nola murrizten dituen haien ahultasunak, gaitasunei eta ahultasunei buruzko azterketan atzemandakoaren arabera.

- Argudiatu esku-hartzeak zein modutan eta zein neurritan daukan garapenarekin konektagarritasun estrategia bat.

11.2.- Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea. Azaldu xede-biztanleriaren parte hartzea esku-hartzearen identifikazioan, inplementazioan eta jarraipenean.

- Txertatu artatutako biztanleriaren parte-hartzearen azterketa bat, 6. atalean identifikatutako kolektiboekin bat etorritik eta espazio ezberdinak aintzat hartuz, formalak eta informalak, tradizionalak eta instituzionalak.

- Deskribatu artatutako biztanleriaren parte-hartze maila, 6. atalean identifikatutako kolektiboekin bat etorritik, esku-hartzearen egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan, eta baita sustatzeko ezarriko diren metodologiak ere, batez ere parte-hartzeko zailtasun handienak

dituzten kolektiboen kasuan. 4. atalak jasotzen du biztanleriaren parte-hartzea identifikazio- eta garapen-prozesuan.

- Argudiatu esku-hartzea nola egokitzen den esku-hartzearen eremuko errealitate soziokulturalera.

- Artatutako biztanleriaren keak jasotzeko eta iradokizunak txertatzeko eta esku-hartzearen emaitzak itzultzeko eremuak eta mekanismoak identifikatu.

11.3.- Eskubideen ikuspegia: babesa, testigantza eta bake-eraikuntza

- Artatutako biztanleriak jasandako eskubide-urraketen azterketa bat txertatu, 6. atalean identifikatutako kolektiboen arabera.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratarata eta zein neurritan eskaintzen dituen eskubideen jabeek euren eskubideak ezagutzeko eta aldarrikatzeko gaitasunak indartzeko ekintzak.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratarata eta zein neurritan dituen betebeharren jabeek giza eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko gaitasuna indartzeko ekintzak.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratarata eta zein neurritan eskaintzen dituen tokian bertan, eremu nazionalen edo nazioartekoan lekukotzak eta gertakariak jasotzeko eta bakea eraikitzeke ekintzak.

11.4.- Genero-berdintasuna

- Testuinguruko genero-harremanen azterketa bat txertatu (gaitasunak, ahultasunak, rolak, erantzukizunak), 6. atalean identifikatutako kolektiboen arabera.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratarata eta zein neurritan erantzuten dien emakumeen eta nesken behar praktiko eta estrategikoei.

- Argudiatu ea esku-hartzeak emakumeei eta neskei egokitutako jarduera espezifikoak badituen.

- Argudiatu esku-hartzeak zein eratarata sustatzen duen emakumeen eta nesken parte-hartzea.

11.5.- Jasangarritasun ekologikoa

- Txertatu testuinguruko ingurumen-egoeraren azterketa bat.

- Esku-hartzeak ingurumenean sortu litzakeen eragin negatiboak identifikatu eta horiek murrizteko abiaraziko diren ekintzak adierazi.

- Esku-hartze eremuan baliabideak kudeatzeko erakundeek dituzten mekanismo instituzionalak deskribatu.

12.- JARRAIPENA (Ez txertatu eranskinik)

Erakunde eskatzaileak (egoitza nagusia, ordezkariak EAEn, bertako ordezkariak eta/edo atzerriko langileak), tokiko bazkideak edo beste agente batzuek aurreikusitako jarraipen eta , hala badagokio, ebaluazio-ekintzak.

13.- ETENGABEKO IKASKUNTZA (Ez txertatu eranskinik)

Kanpo-ebaluazioa aurreikusten bada, deskribatu, labur-labur, helburua, irizpideak, metodologia, gizarteratzeko mekanismoak eta gomendioei erantzuteko mekanismoak, edo ikaskuntzak nola txertatuko diren.

14.- SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK EAEan. (EHE-n derrigorrezkoa) (Ez txertatu eranskinik)

EAEn ekintza, komunikazio, intzidentzia, mobilizazio edo salaketa arloko trebakuntza-ekintzak gauzatzea aurreikusi bada, atal hau bete beharko da. Atal hau derrigorrezkoa da EHErentzat.

14.1.- Testuingurua

Labur-labur, EAEn egin beharreko esku-hartzearen testuingurua azaldu.

14.2.- Xede-biztanleria

Kolektiboa	Kokapen geografikoa	Komunitate a/egonleku/errefuxiatu-esparru	Pertsonak guztira	Emakumeak	Gizonak	Adin-taldea	Aniztasun funtzionala

14.3.- Ekintzek krisialdi humanitarioarekiko duten lotura

14.4.- (H)abian 2030 estrategiaren esparruan herritartasun kritikoa sortzea

15.- ERAKUNDE ONURADUNAK (Ez txertatu eranskinik)

15.1.- Erakunde onuradunak ekintza humanitarioan duen esperientzia

Erakunde onuradunak ekintza humanitarioan izan duen esperientzia (2011-2018)					
Hasierako eta amaierako urtea	Titulua	Laburpena	Tokiko erakundea eta herrialdea	Zenbatekoa eurotan	Funtsen jatorria
2011-					

- 2011tik 2018ra bitartean esperientzia jarraitua izana baloratuko da, hau da, urte horietako bakoitzean ekimen bat egikaritze-fasean egotea. Ekimen bakar batek urte baterako baino gehiagorako balio izan dezake bere iraupenaren arabera.
- Ordezkaritzen kasuan, EAEko ordezkaritzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAEtik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko.
- Erakunde eskatzaileen elkarteak izanez gero, elkartearen buruari dagokion informazioa soilik bete behar da.

15.2.- Erakunde onuradunen esperientzia ekintza humanitarioari buruzko sentsibilizazio-ekintzetan

Erakunde onuradunen esperientzia ekintza humanitarioari buruzko sentsibilizazio-ekintzetan (2017-2018)					
Hasierako eta amaierako urtea	Titulua	Laburpena	Tokiko erakundea eta herrialdea	Zenbatekoa eurotan	Funtsen jatorria
2017-					

- Ekintza humanitarioarekin lotutako proiektuak eta bestelako EpTS ekimen esanguratsuak baloratuko dira (kanpainak, mobilizazio edo ikerketa ekintzak, besteak beste).

15.3.- Erakunde onuradunak indartzeko ekintzak

Erakunde onuradunak indartzeko ekintzak			
Ekintza MLMan identifikatu	Ekintza mota	Hasierako eta amaierako urtea	Zenbatekoa eurotan

(1) MLM atalean adieraziko da jardueraren kodea (adibidez: A.2.3, A.3.1, A.3.3...)

(2) Zein jarduera mota den zehaztuko da: jardunaldi bat, ikastaro bat, diagnostiko bat, ikerketa bat, aholkularitza bat...

16.- TOKIKO ERAKUNDEAK (Ez txertatu eranskinik)

16.1.- Ekintza humanitarioekiko tokiko erakundeak duen esperientzia

Tokiko erakundeak ekintza humanitarioan izan esperientzia (2015-2018)				
Hasierako eta amaierako urtea	Titulua	Laburpena	Xede-biztanleria (kolektiboa eta kokapen geografikoa)	Zenbatekoa eurotan
2015-				

- 2015tik 2018ra bitartean esperientzia jarraitua izana baloratuko da, hau da, urte horietako bakoitzean ekimen bat egikaritze-fasean egotea. Ekimen bakar batek urte baterako baino gehiagorako balio izan dezake bere iraupenaren arabera.
- Erakunde eskatzaileen elkarteak izanez gero, elkartearen buruari dagokion informazioa soilik bete behar da.

16.2.- Tokiko erakundeak indartzeko ekintzak **(EHE-n derrigorrezkoa)**

Tokiko erakundeak indartzeko ekintzak			
Ekintza MLMan identifikatu (1)	Ekintza mota (2)	Hasierako eta amaierako urtea	Zenbatekoa eurotan

(1) MLM atalean adieraziko da jardueraren kodea (adibidez: A.2.3, A.3.1, A.3.3...)

(2) Zein jarduera mota den zehaztuko da: jardunaldiak, ikastarok, diagnostikoak, ikerketak, aholkularitzak...